Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko urriaren 1a, ostirala — 189 — Viernes, a 1 de octubre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ARRASATEKO UDALA

*Euskaltegiko bi irakasle plaza jabetzan betetzeko deialdia.*

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2021eko maiatzaren 7an, 84. zenbakian, argitaratu dira Arrasateko Udal Euskaltegiko irakasle bi plaza, behin betikoz hornitzeko deialdi publikoaren oinarriak.

Deialdi honi buruzko iragarkiak argitaratu dira 96. zenbakidun *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian*, 2021eko maiatzaren 18koa; eta 2021eko maiatzaren 17ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* (*Boletín Oficial del Estado*), (117. zenbakia).

Plaza hauen arauetan akatsak hautemanda Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 16an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzen eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

— Oinarriak zuzentzea edo aldatzea eta aipatu oinarrien aldaketak aintzat hartuta, Arrasateko Udaleko plantillan hutsik dauden Udal Euskaltegiko irakasle bi plaza jabetzan hornitzeko deialdi publiko berria onartzea.

— Eskabide orriak aurkezteko epe berri bat irekitzea, oinarriak osorik eta behean adieraziko den moduan argitaratu ondoren.

— Egindako egintzak kontserbatzea –zuzenketak haietan eraginik ez badu–, eta, bereziki, aurkeztutzat jotzea orain arte jaso diren hautagaien eskabide-orriak eta eskaerak, onartuak izateko. Zortzigarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera, deialdia osorik argitaratzeak beste erreferentzia-egun bat ezartzen du merezimenduak zenbatzeko, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egun berria, hain zuzen. Beraz, alegatutako merezimenduak aldatu nahi dituzten pertsonek eskabideak aurkezteko epe berrian egin ahal izango dute, Arrasateko Udalak zehazten dituen bitartekoak erabiliz.

— Deialdi berria eta oinarrien aldaketak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, baita Udaleko web orrian «lan eskaintza» deituriko atalean ere.

— Horiek argitaratu ostean, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* horien laburpen bat argitaratzea, zer egun eta zer zenbakiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu diren, deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea adieraziz, deialdiaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 20 egun naturaleko epean hain zuzen ere.

*Arrasateko Udal Euskaltegiko irakasle bi plaza, jabetzaz betetzeko txanda irekiko lehiaketa-oposizioa arautuko duten Oinarriak aldatzea.*

*Lehena. Deialdiaren helburua.*

Oinarri hauen xedea da, lehiaketa-oposizio askearen bidez, Arrasateko Udalaren langile plantillan hutsik dauden Udal Euskaltegiko irakasle bi plaza betetzeko deialdia arautzea, hain zuzen, karrerako funtzionarioentzat gorderik daudenak, zeinak 2020ko

## AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

*Convocatoria para la provisión en propiedad de dos plazas de profesor de euskaltegi.*

En el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa número 84, de 7 de mayo de 2021 han sido publicadas las bases que han de regir el proceso selectivo para la provisión definitiva de dos plazas de profesor/a del Euskaltegi Municipal.

Los anuncios relativos a dicha provisión se publicaron en el *Boletín Oficial del País Vasco*, número 96, del 18 de mayo de 2021 y en el *Boletín Oficial del Estado* del 17 de mayo de 2021, número 117.

Habiéndose advertido errores en las bases de estas plazas, la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 16 de septiembre de 2021, en virtud de la delegación de atribuciones otorgada por Alcaldía, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

— La corrección o modificación de las bases y la aprobación de una nueva convocatoria pública para la provisión en propiedad de dos plazas de profesor de Euskaltegi Municipal vacantes en la plantilla del Ayuntamiento de Arrasate, teniendo en cuenta las modificaciones de las citadas bases.

— Abrir un nuevo plazo de presentación de instancias, tras la publicación íntegra de las bases y en la forma que se indica más abajo.

— Conservar los actos realizados –en caso de que la rectificación no afecte a los mismos–, y, en particular, dar por presentadas las solicitudes de las personas candidatas que se han recibido. De acuerdo con lo previsto en la Base Octava, la publicación íntegra de la convocatoria establece un nuevo día de referencia para el cómputo de méritos, el nuevo día de su publicación en el «*Boletín Oficial del Estado*». Por tanto, las personas que deseen modificar los méritos alegados podrán hacerlo en el nuevo plazo de presentación de solicitudes, utilizando los medios que determine el Ayuntamiento de Arrasate.

— Publicar la nueva convocatoria y las modificaciones de las bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, así como en el apartado denominado «oferta de empleo» en la página web del Ayuntamiento.

— Publicar en el *Boletín Oficial del Estado* un extracto de la anterior publicación, con indicación de la fecha y número de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, indicando el plazo de presentación de solicitudes para participar en la convocatoria, en el plazo de 20 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

*Modificación de las Bases que regulan el concurso-oposición para la provisión en propiedad por turno libre de dos plazas de profesor/a del Euskaltegi Municipal de Arrasate.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de estas bases regular la convocatoria para la provisión mediante concurso-oposición libre de dos plazas de profesor o profesora del Euskaltegi Municipal de Arrasate, reservada a funcionario/a de carrera, vacantes en la plantilla de perso-

EK\CV GAO-I-2021-06250

enplegu publikoaren eskaintzari baitagozkio (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2020ko abenduaren 29an).

Oposizioaldiko ariketa guztiak gainditzen dituzten hautagaiek, baina plaza kopuruagatik izendatu gabe geratzen direnek, lan poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazio hurrenkeraren arabera. Lan poltsa hori erabiliko da antzeko edo lanpostu berdineko lanak denboraldi batez egiteko, Udal honek onartutako irizpideen baitan.

*Bigarrena. Plazaren ezaugarriak.*

Araubide juridikoa: Karrerako funtzionarioa.

Plaza kopurua: 2.

Eskala / Azpieskala / Mota: Administrazio Berezia / Teknikaria / Erdi mailakoa.

Sailkapen taldea: A2.

Lanpostuaren izena eta kodea: Euskaltegiko irakaslea.

Lanpostu mailako osagarria: 20.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna: 4, derrigorrezkoa.

Lan jarduna: Udalbatzak urtero jartzen duena; edozelan ere, lanpostuaren izaerari eta beharrizan espezifikoei erantzungo die.

Praktikaldia: Bai.

*Hirugarrena. Lanpostuaren egitekoak.*

Orokorrak:

Euskarako eskolak prestatzea eta ematea Udal Euskaltegian.

Zeregin esanguratsuenak dira:

— Eskolak prestatzea eta ematea: programatzea, dokumentazioa bilatzea, material didaktikoa prestatzea, lanak zuzentzea, beste irakasle batzuekin koordinatzea...

— Ikasturte hasieran, tartean eta amaieran, mailaketa probak prestatzea eta zuzentzea, diagnosiak egitea eta txostenak egitea.

— Eman beharreko materiaren irakasturtea planifikatzea.

— Prestatzea, egitea eta zuzentzea idatzizko zein ahozko probak.

— Joan ebaluazio bileretara eta horien txostenak egitea, eta ebaluazioaren berri ematea ikasleei.

— Bilerak egitea arduradunekin, ikasleen eboluzioaz informatzeko.

— Erakunde ofizialetatik datozen ikasleen jarraipena egitea, eta horiei buruzko txostenak egitea.

— Barnetegiak antolatzea.

— Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea.

— Beste irakasle batzuen ordezkapenak egitea.

— Klaustroaren bileretan parte hartzea.

— Eskola materiala antolatzea eta eguneratzea.

Eta, oro har, bere kategorian eskatzen zaion beste edozein zeregin egitea, betiere aldez aurretik irakatsi bazaio.

*Laugarrena. Deialdian parte hartzeko baldintzak.*

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik bete beharko dituzte hautagaiek eskatzen diren baldintza guzti-guztiak.

a) Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

nal del Ayuntamiento de Arrasate. Y que corresponden a la oferta de empleo pública del año 2020 (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 29 de diciembre del 2020).

La lista de aspirantes que habiendo superado todos los ejercicios de la oposición excedan del número de plazas convocadas integrarán, en el orden de puntuación obtenido, una bolsa de trabajo que se utilizará para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos similares o idénticos, conforme a los criterios aprobados por este Ayuntamiento.

*Segunda. Características de la plaza.*

Régimen jurídico: Funcionario/a de carrera.

Número de plazas: 2.

Escala / Subescala / Clase: Administración Especial / Técnica / Media.

Grupo de clasificación: A2.

Denominación y Código del puesto: Profesor/a Euskaltegi.

Nivel de Complemento de Destino: 20.

Perfil lingüístico exigido: 4, preceptivo.

Jornada: La que establezca anualmente la Corporación atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto.

Período de prácticas: Sí.

*Tercera. Funciones del puesto.*

Con carácter general:

Preparar e impartir clases de euskera en el Euskaltegi Municipal.

Como tareas más significativas:

— Preparar e impartir clases: concretar programación, recabar documentación, preparar material didáctico, corregir trabajos, coordinarse con otros profesores...

— Preparar y corregir pruebas de nivel a inicio, mediados y finales de curso, realizar diagnóstico y emitir informe.

— Planificar el curso lectivo de la materia a impartir.

— Preparar, realizar y corregir pruebas escritas y orales.

— Asistir y realizar informes de las reuniones de evaluación, e informar a los alumnos.

— Mantener reuniones con las personas responsables para informar de la evolución de los/las alumnos/as.

— Hacer seguimiento y realizar informes de los/las alumnos/as provenientes de organismos oficiales.

— Organizar internados.

— Participar en actividades extraescolares.

— Realizar sustituciones de otros/as profesores/as.

— Participar en las reuniones del claustro.

— Organizar y actualizar material escolar.

Y, en general, cualquier otra tarea que le sea encomendada en su categoría siempre que haya sido previamente instruida.

*Cuarta. Condiciones para participar en la convocatoria.*

Las personas aspirantes deberán reunir todas y cada una de las condiciones exigidas en la fecha en que expire el plazo señalado para la presentación de solicitudes.

a) Tener la nacionalidad de alguno de los estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores/as en virtud de la aplicación de los tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español.

EK\CV GAO-I-2021-06250

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, bai eta haren ondorengoak eta haren ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, eta haren kontura bizi direnak.

b) Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean hamasei (16) urte beteta izatea, eta nahitaez erretiratzeko adina ez izatea.

c) Titulazio akademiko hauetako baten jabe izatea edo horiek lortzeko eskubideak ordaindu izana: Ingenieritza teknikoa, Unibertsitate Diplomatura edo Gradua, Arkitektura teknikoa/Maisu-Maistra. Halaber, onartu egingo dira 1984ko ekainaren 22ko HABEren Zuzendari Orokorraren Ebazpenean araututakoaren arabera homologaturiko irakaslegaiak.

Atzerriko titulazioren bat izanez gero, titulu horren homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria eduki beharko da.

d) Euskarako C2 maila izatea, Eusko Jaurlaritzaren 48/2009 Dekretuan zehaztutako edozein titulu dela ere. Orobat, ontzat hartuko dira Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriaren arabera C2 egiaztatzetik salbuesten duten titulazioak. C1 maila egiaztatuta edota egiaztatzetik salbuetsita dauden pertsonak ere onartuko dira.

e) Lanpostuaren eginkizunak normaltasunez betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea. Atal hau bere garaian egiaztatu beharko du proposatutako hautagaiak, Udalak zehazturiko zerbitzuetan egingo duen mediku azterketa bidez.

f) Diziplina espedientea dela medio, Estatuko, Autonomi Erkidegoko nahiz udal erakundeen menpeko lanetik banandua ez izana, ezta herri eginkizunetan aritzeko ere.

Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea eta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

g) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege kausaren batean sartuta ez egotea.

h) Lanbide, ogibide eta jarduera batera iristeko eta horretan aritzeko baldintza bat dago: kondenaturik ez egotea epai irmoz delituren bat egiteagatik sexu askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren aurka, zeinetan sartzen diren sexu erasoa eta sexu abusua, sexu jazarpena, exhibizionismoa eta sexu probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa, eta adingabeak galbideratzea, bai eta gizon-emakumeen salerosketa ere. Hartarako, norbaitek iritsi/aritu gura badu horrelako lanbide, ogibide edo jarduera batean, egiaztatu beharko du esandako hori, ziurtagiri baten bidez, non agertuko duen ez dagoela erregistratuta sexu delitugileen erregistro zentralean.

Baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete eta mantendu egin beharko dira. e) g) eta h) atalean ezartzen direnei dagokienez, berriz, karrerako funtzionario kargua hartzeko egunean kreditatu beharko dira, eta bete ezean, hautagaiak ezin izango du kargua hartu; bai, ordea, sartu ahalko da lan poltsan.

*Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea.*

5.1. Eskariak non eta nola aurkeztu: Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidea oinarrien eranskinean agertzen den ereduaren araberakoa izango da, eta Arrasateko Udaleko alkateari zuzenduko zaio. Honako moduren batean aurkeztu ahalko dira eskariok:

También podrán participar el/la cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas

b) Tener cumplidos dieciséis (16) años de edad antes de la finalización del período de solicitudes y no haber alcanzado la edad de jubilación forzosa.

c) Estar en posesión o haber abonado los derechos para obtener alguna de las siguientes titulaciones académicas: Ingeniería técnica, Diplomatura o grado universitario, arquitectura técnica/Maestro-Maestra. Asimismo, se admitirá a las personas que estuvieran homologadas en base a lo regulado en la Resolución del Director General de HABE del 22 de junio de 1984.

En el caso de las titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

d) Estar en posesión del nivel C2 de euskera, con cualquiera de los títulos que se especifiquen en el Decreto 48/2009 del Gobierno Vasco. Asimismo, se aceptarán las titulaciones que, según la disposición adicional segunda del Decreto 47/2012 del Gobierno Vasco, están exentas de acreditar C2. No obstante, se admitirán las personas que acrediten estar en posesión del nivel C1 o están exentos de acreditarlo.

e) No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto. Este extremo habrá de acreditarse en su momento, tras un reconocimiento a que será sometida la persona aspirante propuesta, en los servicios establecidos a tal efecto por el Ayuntamiento.

f) No haber sido separada del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas (estatales, autonómicas o municipales) mediante expediente disciplinario ni hallarse inhabilitada para el ejercicio de funciones públicas.

En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitada o en situación equivalente ni haber sido sometida a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

g) No estar incursa en ninguna causa legal de incapacidad e incompatibilidad, de acuerdo con lo previsto en la Ley 53/1984, de incompatibilidad del personal al servicio de las administraciones públicas.

h) Será requisito para el acceso y ejercicio a las profesiones, oficios y actividades que impliquen contacto habitual con menores, el no haber sido condenada por sentencia firme por algún delito contra la libertad e indemnidad sexual, que incluye la agresión y abuso sexual, acoso sexual, exhibicionismo y provocación sexual, prostitución y explotación sexual y corrupción de menores, así como por trata de seres humanos. A tal efecto, quien pretenda el acceso a tales profesiones, oficios o actividades deberá acreditar esta circunstancia mediante la aportación de una certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales.

Estos requisitos habrán de ser cumplidos a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias y mantenerlos hasta el momento de la toma de posesión como funcionaria de carrera de este Ayuntamiento. En lo que a los apartados e) g) y h) se refiere, dichas condiciones habrán de cumplirse en el momento de la toma de posesión, y, de no cumplirlo, la persona candidata no podrá ser nombrada como funcionaria de carrera, aunque sí podrá formar parte de la bolsa de trabajo.

*Quinta. Presentación de solicitudes.*

5.1. Dónde y cómo presentar las solicitudes: Las instancias se ajustarán al modelo que figura en el anexo de las bases y se dirigirán a la alcaldesa del Ayuntamiento de Arrasate, solicitando tomar parte en el proceso selectivo, y se presentarán en cualquiera de estos modos:

EK\CV GAO-I-2021-06250

5.1.1. Udal webgune bidez (www.arrasate.eus).

5.1.2. 39/2015 legeak –Administrazio publikoen prozedura amankomun legeak– 16.4 artikuluan izendatzen dituen bideetatik ere aurkez daitezke eskaerak.

Kasu horretan, dagokion funtzionarioak eskabideak aurkezteko epean data eta zigilua ipini beharko die. Horrela eginez gero bakarrik ulertuko da eskabideak aipatu erregistroetan sartutako egunean izan duela sarrera Arrasateko Udaleko Erregistro Orokorrean (zigiluak eskabidean bertan egon behar du).

Eskaerarekin batera ez da aurkeztu behar bestelako dokumentazio gehigarririk. Hala ere, eskaera orrian hautagaiek lehiaketaldian baloratzekoak diren merezimenduei buruzko datuak adierazi/zerrendatu beharko dituzte, izan ere, eskabideak aurkezteko unean alegatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko.

5.2. Epea: 20 egun baliodun Deialdiaren laburpenaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

5.2.1. Eskabideetako akatsak zuzentzea: eskabideak aurkezteko epearen barruan eta ezarritako moduan aurkezten ez badira, hautagaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da. Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluarekin bat etorriz, eskaeretan akatsen bat egonez gero, interesdunari eskatuko zaio hamar egun baliodunko epean zuzen dezala eskabidean egindako akatsa edo hutsa, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela.

5.3. Adierazpen espresua: eskabidean adierazi beharko da deialdiaren oinarri-arauetan eskatutako baldintza guztiak betetzen direla. Horretarako sinatutako adierazpena egin beharko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartzeko ardura duen organoak prozeduraren edozein momentutan jakiten badu hautagairen batek ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko ezarritako eskakizunak, hautagaia hautaketa prozesutik kanporatu egingo du, bere arrazoiak entzun ondoren.

5.4. Ezgaitasuna dutenen kasuan: ezintasunen bat daukaten lehiakideek hala adierazi beharko dute eskaeran, dagokion laukia markatuz. Era berean, beharrezko balute denbora edo baliabideak egokitzea probak egin ahal izateko, hala adierazi beharko dute. Lehiakideak ezintasuna jasotzen duen egiaztagiri ofiziala eta egin beharreko egokitzapenen inguruko txostena aurkeztu beharko ditu. Agiri horiek onartuen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik aurkeztu beharko ditu, epaimahaiak denbora izan dezan egin beharreko egokitzapenak egiteko. Ezintasuntzat hartzen da azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak zehazten duena (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak). Bestela esanda, administrazioko organo eskudunak % 33ko elbarritasuna edo handiagoa aitortu dien pertsonak dira ezinduak edo elbarriak.

5.5. Izaera pertsonaleko datuak. Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta aplikagarri diren bestelako arauak. Datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko ez besterako erabiliko dira, interesdunak emandako baimenean eta datu tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio libreari dagokienez, pertsona fisikoak babestekoak, 6.1 artikuluaren a) eta e) letretan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

5.1.1. A través de la web municipal (www.arrasate.eus).

5.1.2. Por los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En este caso, el/la funcionario/a correspondiente deberá poner fecha y sello en el plazo de presentación de solicitudes. Sólo en este caso se entenderá que la solicitud ha tenido entrada en el Registro General del Ayuntamiento de Arrasate en la fecha en que haya tenido entrada en los citados registros (el sello debe figurar en la solicitud).

No deberá adjuntarse ninguna documentación a la solicitud. Pero se harán constar, en la instancia de solicitud, los datos referentes a los méritos a valorar en la fase de concurso, pues los méritos no alegados en el momento de presentación de instancias no serán valorados.

5.2. Plazo: 20 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio del extracto de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

5.2.1. Corrección de defectos en las instancias: La no presentación de la solicitud en tiempo y forma, dentro del plazo de presentación de instancias, supondrá la exclusión de la persona aspirante del proceso selectivo. No obstante, de conformidad con el artículo 68 de la Ley 39/2015 en el supuesto de defectos en las instancias se requerirá a la persona interesada para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane la falta o defecto de que adolezca la instancia con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición.

5.3. Declaracion expresa: en la solicitud se debe manifestar que se reúnen todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria. Para ello, se ha de firmar la declaración.

No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, si en cualquier momento del procedimiento llegara a conocimiento del órgano competente para aprobar la relación de personas admitidas y excluidas que alguna persona aspirante carece de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria, le excluirá del proceso selectivo, previa audiencia a la persona interesada.

5.4. En caso de discapacidad: las personas aspirantes con discapacidad deberán indicarlo en la solicitud, para lo cual se utilizará el recuadro correspondiente. Asimismo, deberán expresar las posibles adaptaciones de tiempo y medios que, en su caso, consideren necesarias para la realización de las pruebas selectivas. La persona solicitante deberá aportar certificado oficial de reconocimiento de la discapacidad e informe relativo a las adaptaciones requeridas. Esta documentación deberá aportarse con anterioridad a la publicación de la relación definitiva de personas admitidas y excluidas, a fin de que el Tribunal pueda adoptar las medidas oportunas. Se entenderá por personas con discapacidad las definidas en el artículo 4.1 y 4.2 de la Ley Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, es decir, aquellas a quienes se les haya reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 por el órgano competente de la Administración.

5.5. Protección de datos personales. El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y demás disposiciones que resulten de aplicación. Los datos personales serán tratados con la finalidad de gestionar las solicitudes para participar en el proceso selectivo, en base al consentimiento otorgado por la persona interesada y al ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento contemplados, respectivamente, en las letras a) y e) del artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos.

EK\CV GAO-I-2021-06250

Datu pertsonalak eman ezean, ezin izango da aurkeztu hautaketa prozesuan.

5.5.1. Berariazko baimena eman beharko dute hautagaiek, parte hartzeko eskaeran, beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko, 9. oinarrian aurreikusitako ondorioetarako. Datu lagapen horren helburu bakar eta esklusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala; eta hautagaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

5.5.2. Tratamenduaren legitimazioa: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatuaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea, uztailaren 6koa; eta 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuak betetzeko eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako arautegi orokorra onartzen duena.

5.5.3. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, aurka egiteko edo mugatzeko eskubidea baliatu ahal izango da; horretarako, Arrasateko Udaleko tratamendu arduradunari idatzizko jakinarazpena bidaliz helbide honetara: Herriko plaza nagusia, 1. 20500 Arrasate (Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Halaber, hautagaiek eskubidea dute erretiratzeko datuak lagatzeko baimena, eta eskubidea dute baita datuen babesaren arloko Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazioa egiteko ere.

*Seigarrena. Hautagaiak onartzea.*

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko eta Epaimahai Kalifikatzailea izendatzeko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Arrasateko udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean (www.arrasate.eus) argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko 10 laneguneko epea izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan dioenaren arabera.

Erreklamaziorik egingo ez balitz, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da besterik gabe. Erreklamaziorik egingo balitz, horiek onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeari buruz hartuko den ebazpen berri baten bidez, eta era berean argitaratuko da.

Erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, behin onartu eta baztertutakoen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean, eta bidezko den beste edozein helegite tarteratzea eragotzi gabe.

*Zazpigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.*

Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrek eta ordezkoek osatuko dute, eta horien izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Arrasateko udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian (www.arrasate.eus). Hauek izango dira kideak:

Mahaiburua:

— Euskaltegiko zuzendaria. Ordezkoa, Euskaltegiko idazkari akademikoa.

Mahaikideak:

— Euskara teknikaria. Ordezkoa, Euskaltegiko irakasle bat.

— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide bat eta baita horren ordezkoa ere.

En caso de no facilitar los datos personales, no se podrá acceder al proceso selectivo.

5.5.1. En la solicitud de participación se requerirá el consentimiento expreso de las personas aspirantes para aceptar la cesión de sus datos a otras administraciones públicas a los efectos previstos en la base 9.ª Esta cesión de datos tendrá como única y exclusiva finalidad, que puedan recibir ofertas de empleo de esas otras administraciones públicas en los términos legalmente previstos, considerándose, de no constar expresamente la aceptación de la persona aspirante, que se opone a dicha cesión.

5.5.2. Legitimación del tratamiento: Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de ingreso del personal al servicio de la Administración General del Estado y de provisión de puestos de trabajo y promoción profesional de los funcionarios civiles de la Administración General del Estado.

5.5.3. Podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, supresión, portabilidad, oposición o limitación al tratamiento de sus datos, dirigiendo una comunicación escrita a la persona responsable del tratamiento en el Ayuntamiento de Arrasate a la siguiente dirección: C/Herriko plaza nagusia, 1. 20500-Arrasate (Gipuzkoa), con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.

Asimismo, informamos del derecho a retirar el consentimiento prestado para la cesión de sus datos y del derecho a reclamar ante la Autoridad de Control en materia de protección de datos.

*Sexta. Admision de aspirantes.*

La resolución por la que se apruebe la lista provisional de personas admitidas y excluidas, y se designe el Tribunal Calificador, se hará pública en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Arrasate y en la página web municipal (www.arrasate.eus), concediéndose un plazo de 10 días hábiles para reclamaciones, a tenor del art. 68 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva, que se hará pública, asimismo, en la forma indicada.

Contra dicha resolución podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la lista de personas admitidas y excluidas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sin perjuicio de que pueda interponerse cualquier otro recurso que se estime procedente.

*Séptima. Tribunal calificador.*

El Tribunal Calificador estará compuesto por titulares y suplentes, cuya designación será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Arrasate y en la web municipal (www.arrasate.eus), quedando constituido de la siguiente manera:

Presidenta:

— La directora del Euskaltegi. Suplente, la secretaria académica del Euskaltegi.

Vocales:

— La técnica de euskera. Suplente, una profesora del Euskaltegi.

— Una persona designada por el Instituto Vasco de Administración Pública, así como su suplente.

EK\CV GAO-I-2021-06250

— HABEk izendaturiko kide bat, eta baita horren ordezkoa ere.

— Udal funtzionario bat, eta baita horren ordezkoa ere.

— HAEEk izendaturiko pertsona bat euskara proba egiteko, eta baita horren ordezkoa ere.

Idazkaria:

— Udaleko funtzionario bat, eta baita horren ordezkoa ere.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideei aplikatuko zaizkie Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotzen diren abstentzio eta ezespen kausak.

Langileak hautatzeko organoek kolegiatuta jardungo dute, eta osaketa, berriz, profesionaltasun eta inpartzialtasun printzipioei jarraiki egingo da. Era berean, emakume eta gizonen arteko parekotasuna gogoan hartuko da.

Epaimahaia osatuko duten mahaikideen erdiak gutxienez eduki behar du lanpostua eskuratzeko eskatzen den jakintza arlo berari dagokion titulazioa, eta mahaikide guztiek maila akademiko berekoa edo goragokoa izango dute.

Epaimahaiak, komenigarritzat jo dezakeen probetan, gai ezberdinetan adituak diren aholkularien lankidetza eska lezake.

Epaimahaikideak beraiek dira deialdiaren oinarriak betetzearen eta ezarritako epeetara lotzearen erantzuleak. Deialdi honen oinarrien aplikazioa interpretatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak epaimahaiak ebatziko ditu; gehiengoz, eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin behar dena ere erabakiko du.

Epaimahaia ezingo da osatu eta ezingo du jardun, baldin eta, gutxienez, epaimahaiburua eta idazkaria, edo horiek ordezkatzen dituzten pertsonak, eta kideen erdiak gutxienez ez badaude. Zenbaketatik kanpo geratzen da idazkari dihardduena. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa edukiko dituzte, idazkariak izan ezik; horrek hitza edukiko du, baina botorik ez. Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa egonez gero, epaimahaiburu dihardduenak ebatziko du.

Epaimahaiaren jardunbidea, uneoro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak agintzen duenari atxikiko zaio.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da alkate-udalburuaren aurrean. Hilabeteko epea izango da horretarako, udal webgunean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

Ariketak egitera, Ebazpen bidez, prozesuan onartuak izan diren hautagaiak aurkeztu ahal izango dira. Modu berean, ariketa egiteko unean bertan alegazioak aurkeztu dituztela eta horiek erabaki gabe daudela egiaztatuko duten hautagaiek ere aukera izango dute ariketak egiteko. Aurkeztutako erreklamazioa azkenean onartuko ez balitz, hautagaia prozesutik behin betiko baztertuta geratuko litzateke.

Jakinarazpenak: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ondorioetarako, hautaketa-prozeduratik eratortzen diren administrazio-egintzak Udalaren web orrian argitaratuko dira. Horrek jakinarazpena ordeztuko du, eta ondorio berak izango ditu.

*Zortzigarrena. Hautaketa prozesua.*

Hautagaiak hautatzeko erabiliko den sistema izango da sarrera irekia, oposizio-lehiaketa bidez.

8.1. Oposizioaldia.

Oposizioaldiko lehenengo ariketa egiteko eguna eta ordua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Arrasateko udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian (www.arrasate.eus) argitaratuko dira.

— Una persona designada por HABE, así como su suplente.

— Una persona funcionaria municipal, así como su suplente.

— Una persona designada por el IVAP para la realización de la prueba de euskara, así como su suplente.

Secretario/a:

— Una persona funcionaria municipal, así como su suplente.

A quienes integran el Tribunal Calificador les serán de aplicación las causas de abstención y recusación recogidas en los arts. 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Los órganos de selección serán colegiados y su composición deberá ajustarse a los principios de imparcialidad y profesionalidad de sus miembros, y se tenderá, asimismo, a la paridad entre mujeres y hombres.

Al menos la mitad de los/as integrantes del Tribunal Calificador deberán estar en posesión de la titulación correspondiente al mismo ámbito de conocimiento exigido para acceder al puesto, y todos deberán poseer un nivel académico igual o superior.

En las pruebas en que lo considere conveniente, el Tribunal podrá recabar la colaboración de asesores/as expertos/as en las materias de que se trate.

Quienes componen el Tribunal son personalmente responsables del estricto cumplimiento de las bases de la convocatoria y de la sujeción a los plazos establecidos. Las dudas o reclamaciones que puedan originarse con la interpretación de la aplicación de las bases de la presente convocatoria, así como lo que deba hacerse en los casos no previstos, serán resueltas por el Tribunal, por mayoría.

El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia, como mínimo, de quienes ocupen la Presidencia y la Secretaría, o quienes los/las sustituyan y de la mitad al menos de sus componentes. Del cómputo, se exceptúa a quien actúe como Secretario o Secretaria. Todas las personas componentes del Tribunal tendrán voz y voto, menos quien ocupe la Secretaría, que tendrá voz pero no voto. Los acuerdos del Tribunal se adoptarán por mayoría de votos, resolviendo, en caso de empate, quien actúe como Presidente/a.

El procedimiento de actuación del Tribunal se ajustará, en todo momento, a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Contra las resoluciones del Tribunal podrá interponerse recurso de alzada ante la Alcaldesa-Presidenta en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en la web municipal.

A la realización de las pruebas podrán asistir las personas aspirantes que figuren como admitidas al proceso en virtud de Resolución, así como, aquellas personas que, figurando como excluidas, acrediten en el acto convocado la interposición del/los correspondiente/es medio/s de impugnación pendiente/s de resolución. Si el resultado de su reclamación fuese desestimatorio, la persona aspirante quedaría definitivamente excluida del proceso.

Notificaciones: a los efectos de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones Públicas, los actos administrativos que deriven del procedimiento selectivo serán objeto de publicación en la página web municipal, sustituyendo a la notificación y surtiendo sus mismos efectos.

*Octava. Proceso de selección.*

La selección de las personas aspirantes se llevará a cabo por el sistema de acceso libre mediante concurso-oposición.

8.1. Fase de oposición.

La convocatoria del primer ejercicio a realizar será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Arrasate y en la web municipal (www.arra-

EK\CV GAO-I-2021-06250

Hurrengo probetara dei egiteko iragarkiak Udalaren web orrian argitaratuko dira, gutxienez 3 laneguneko aurrerapenarekin.

Epaimahai Kalifikatzaileak edozein momentutan eska dezake hautagaiak bere burua identifikatzea. Horretarako, oposizioko ariketa guztietara Nortasun Agiriarekin edo Epaimahaiak hautagaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen duela erabakiko duen beste edozein dokumentu ofizialekin (pasaportea, gidatzeko baimena, Atzerritarraren Nortasun Zenbakia...) aurkeztuko da hautagaia.

Deialdi bakarra egingo da ariketa bakoitzeko. Epaimahaiak ariketa egiteko jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren hautagaiak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira erabat, salbu behar bezala egiaztatu eta epaimahaiak aintzat hartzen dituen ezinbesteko kasuetan.

Epaimahaiak oinarri hauetan zehazten diren oposizioaldiko ariketen hurrenkera aldatzeko ahalmena izango du. Halaber, egun berean ariketa bat edo gehiago egitea erabaki dezake, eta horren berri aldez aurretik emango zaie hautagaie.

Euskaraz egingo diren ondorengo ariketek osatuko dute oposizioaldia:

— Lehenengo ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzailea. I. eranskineko gai zerrendan sartutako gaiei buruzko galdetegi bat erantzun beharko da, aukera anitzeko test baten bidez.

Gehienez 20 puntu eskuratu ahal izango dira ariketa honetan, eta gainditzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du erantzun okerrek zigorrik izango duten, eta ariketaren hasieran emango da horren berri.

Behin ariketa zuzendu ondoren eta hautagaien nortasuna jakinarazi eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu aurretik, Epaimahaiak ariketa gainditzeko beharrezkoak izango diren gutxieneko puntuak lortzeko nahitaezko ezagueren maila edo atalasea ezarri ahal izango du.

— Bigarren ariketa. Euskara. Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Eskatutako euskara maila (C2) egiaztatzeko proba. «Gai» edo «Ez Gai» kalifikatuko da.

Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak dioena betez, proba hori egitetik salbuetsita geratuko dira 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten hautagaiak; bai eta Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriaren arabera C2 egiaztatzetik salbuetsita daudenak ere.

Gainerako ariketak gaindituta, eta euskara maila egiaztatzeko ariketa gainditzen ez duten hautagaiek lan poltsaren zerrenda osagarria osatuko dute, betiere C2 euskara maila egiaztatua dutenen eta egiaztatzetik salbuetsita daudenen ondoren.

— Hirugarren ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Epaimahaiak zehaztutako gehienezko epean, HABEren Curriculumarekin, beronen atalekin eta Curriculumaren beraren garapen aplikazioarekin lotutako idatzizko proba egin beharko da.

Ariketa hau gehienez ere 40 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko, gutxienez, 20 puntu lortu beharko dira.

— Laugarren ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Irakasteko gaitasuna. Hautagaiak Epaimahaiak planteatutako irakaskuntza egoerari erantzun beharko dio ahoz.

sate.eus), indicando fecha, hora y lugar de celebración del examen. La publicación de los sucesivos anuncios de celebración de cada una de las pruebas se realizará en la web municipal, y con al menos 3 días hábiles de antelación.

El Tribunal Calificador podrá en todo momento requerir a las personas aspirantes para que se identifiquen debidamente, a cuyo efecto habrán de concurrir a la realización de cada ejercicio de la oposición provistas del DNI o cualquier otro documento oficial, que a juicio del tribunal resulte suficientemente acreditativo de la identidad de la persona aspirante (pasaporte, permiso de conducir, Número de Identidad de Extranjero etc.).

Las personas aspirantes serán convocadas para cada ejercicio en llamamiento único. Las personas aspirantes que no se presenten el día, hora y lugar indicados en la convocatoria de los ejercicios quedarán totalmente apartados del proceso de selección, salvo causas de fuerza mayor debidamente justificadas y libremente apreciadas por el Tribunal.

El Tribunal Calificador podrá disponer la celebración de las pruebas de la fase de oposición en orden diferente al previsto en las bases, así como, determinar la realización de uno o más ejercicios en el mismo día, lo que se comunicará previamente.

La fase de oposición constará de los siguientes ejercicios que serán realizados en euskera:

— Primer ejercicio. De carácter obligatorio y eliminatorio, consistirá en contestar a preguntas teóricas, tipo test, sobre los temas incluidos en el temario del anexo I.

Se valorará sobre una puntuación máxima de 20 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 10 puntos para superarlo.

Queda a criterio del Tribunal Calificador la penalización de las respuestas incorrectas, que se hará público al comienzo del ejercicio.

Una vez corregido el ejercicio y antes de desvelar la identidad de las personas aspirantes y determinar la calificación de cada una, el Tribunal podrá establecer el nivel o umbral de conocimientos necesario para la obtención del mínimo de puntos necesarios para aprobar el ejercicio.

— Segundo ejercicio. Euskera. Obligatorio y eliminatorio. Realización de ejercicios para acreditar el nivel de euskera exigido (C2). Este ejercicio se calificará como «Apto» o «No Apto».

Estarán exentos de realizar esta prueba aquellos/as aspirantes que hayan acreditado estar en posesión del perfil lingüístico 4, en los términos establecidos en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, por el que se establecen convalidaciones de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas; así como aquellos que, conforme a la 2.ª disposición complementaria del Decreto 47/2012, del Gobierno Vasco, estén exentos de certificar el nivel C2.

Las personas aspirantes que, habiendo superado el resto de los ejercicios, no superen el ejercicio de acreditación de nivel de euskera, pasarán a integrar la relación complementaria para la bolsa de trabajo, siempre detrás de quienes tengan acreditado el nivel C2 de euskera y de quienes estén exentos de certificarlo.

— Tercer ejercicio. De carácter obligatorio y eliminatorio. En el plazo máximo que determine el Tribunal. Consistirá en la realización de una prueba escrita relacionada con el Currículum de HABE, sus apartados y la aplicación de desarrollo del propio Currículum.

Este ejercicio se calificará sobre un máximo de 40 puntos siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para superar el mismo.

— Cuarto ejercicio. Obligatorio y eliminatorio. Capacidad docente. La persona aspirante deberá responder verbalmente a la situación docente planteada por el Tribunal.

EK\CV GAO-I-2021-06250

Ariketa hau gehienez ere 30 punturekin baloratuko da eta gainditzeko, gutxienez 15 puntu lortu beharko dira.

Erreklamazioak: ariketa bakoitza egin ondoren hiru egun baliodunen epe bat emango da ezarritako kalifikazioen gainean erreklamazioak aurkezteko.

8.2. Lehiaketaldia.

Merezimenduak kalifikatzeko, oposizioko laugarren ariketaren emaitzak argitaratu ondoren, hamar egun balioduneko epea ezarriko da aipaturiko fasea gainditu duten hautagaiek merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko (egiaztagiriak aurkeztea). Deialdiaren laburpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunera arte hartutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Eskabidean aldez aurretik jaso ziren merezimenduak baino ez dira baloratuko, baldin eta, goian adierazitako epearen amaieran, jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuz behar bezala egiaztatu badira.

Lehiaketaldiak ez du baztertze indarrik edukiko eta ezingo da kontuan hartu oposizioaldiko probak gainditzeko. Aitzitik, oposizioaldia gainditzen duten hautagaientzat izango da.

— Lan esperientzia. Gehinez ere 32 puntu.

Euskara irakasle gisa, helduen euskalduntzean izandako esperientzia HABEren curriculumari jarraiki: egiaztatutako 300 orduko 2 puntu. Gehienez 22 puntu.

Euskara irakasle gisa, ume eta nerabe etorkinei eskola ematen egindako 150 orduko puntu 1. Gehienez 5 puntu.

Administrazioko edo enpresetako euskara plangintzaren batean euskara teknikari edo trebatzaile: 6 hilabeteko puntu 1 Administrazioaren kasuan, eta 6 hilabeteko 0,5 puntu enpresen kasuan. Gehienez ere 5 puntu.

